

Kopa baginala

«HILEKOAREN FLUXUA XURGATU BEHARREAN, KOPAK JASO EGITEN DU»

Emakumeek hilekoa duten bakoitzean, erabilpen bakarreko dozenaka tanpoi edo konpresa erabiltzen dituzte. Zabor kopuru handia eragiteaz gainera, tanpoiak edota konpresak zurrizko erabiltzen diren elementuak emakumearen gorputzerako toxikoak izan daitzkeela diote hainbat adituk. Arazo horiei aurre egiteko, tanpoi ekologiko, hilekorako kopa edota kopa baginala deitzen den silikonazko kopa merkaturatzen ari da azken urteotan eta egunetik egunera gehiago dira haren aldeko hautua egiten duten emakumeak.

Hilekoa daukagun bakoitzean berrerabil daitekeen produktu hau tanpoien antzera erabiltzen da. Haatik, hileko fluxua xurgatu beharrean, jaso egiten du.

Edurne Estevezek familiei arreta integrala ematen dien Gasteizko Centro Primal egoitzan egiten du lan. Haurdunaldian eta erditze ondorengo uneetan dauden emakumeekin aritzen da bereziki eta, Estevezek GAUR8ri azaldu moduan, kopa baginala erabiltzeko gomendatzen dio bertaritzen den orori.

Tanpoi ekologikoaren saltzaile izateaz gainera, erabiltzaile sutsua da Estevez. Kopa baginala 2007an ezagutu zuenetik, gainera, ez ditu bestelako tanpoiak eta konpresak berriz erabili. Hala adierazi digu behintzat; «oso-oso eroso da, benetan», esan du, irakurleak konbentzitu nahian. «Jarri ondoren ez da batere nabaritzen, batzuetan, jarri dugun edo

ez pentsatu behar dugu, erabat seguru egoteko», gehitu du.

25 eta 30 euro artean balio du kopak eta merkatuan bi neurri daude, baginako muskuluen tamainaren arabekoak. Normalean, 30 urtetik beherako emakumeek neurri txikia erabili behar dute eta 30 urtetik gorakoek edo erditu direnek tamaina handia erabili behar dute.

Lehen begi-kolpean, kopa baginan sartzea eta hura ateratzea konplikatu dela dirudi. Alta, Estevezek argitu moduan, ez da batere zaila. «Kopa tolestuta sartu behar da, eroso egiten zaigun jarrikeran, eta ateratzeko, kopari atximur eginda erraz ateratzen da», azaldu du.

Lau eta zortzi ordu arteko epean kopa ateratzea gomendatzen da, norberak duen fluxuaren arabera betiere. Atera, hustu eta uretatik pasa ondoren, berriz jarri behar da kopa, eta zortzi orduko tartea igaro ondoren, prozesu bera errepikatu. Nahi izanez gero, xaboi leunarekin ere garbitu daitzkeela eman du aditzera Estevezek. Menstruaziotik menstruziora, aldiz, esterilizatzea gomendatzen dute batzuek, eta horretarako, ur irakinetan bost minutuz uztearekin nahikoa da.

Kopa baginalaren onurak «askotarikoak» dira, Esteveren begietara. Garrantzitsuena, haren ustez, erabilpen bakarreko produktuak baztertzeko eskaintzen digun «aukera paregabea». Hainbat ikerketaren arabera, emakume bakar batek 10.000 tanpoi edota konpresa erabiltzen ditu bere bizitzan, «horrek dakarren zakar kopuruarekin».



Edurne Estevez, Gasteizko Centro Primal-en, kopa baginala eskuetan duela. Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

Ekonomikoki ere «sekulako alde» dago kopa baginala erabili edota bestelako tanpoi edota konpresak erabili. Estevezek datuak jarri ditu mahai gainean eta 25 eta 30 euro artean balio duen kopak bost eta hamar urteko iraupena duela adierazi digu; «1.000 tanpoi edo konpresaren antzera irauten du», zehaztu du, alde ekonomikoa argiago ikusi dadin.

«Hainbat ikerketaren arabera, emakume bakar batek 10.000 tanpoi edota konpresa erabiltzen ditu bere bizitzan, horrek dakarren zabor kopuruarekin»

«Tanpoiek hilekoko fluxua xurgatzeaz gainera, baginan egon ohi den mukosa ere xurgatzen dutenez, emakumeengan lehortasun sentsazioa eragiten dute»

Emakumeentzat kopa baginala erabiltzea «oso aberasgarria» dela aitortu du Estevezek, izan ere, hilekoaren inguruan asko ikasten dela nabarmendu du. «Erabili eta botatzekoak diren tanpoi eta konpresekin gure fluxu kopurua benetan dena baino handiagoa dela uste dugu», esan du.

ALERGIAK EKIDITEKO

Osasun ikuspegitik ere badira kopa erabiltzeko argudioak, Estevezek arabera. Haren ustez, gero eta emakume gehiagok alergia arazoak dituzte eta tanpoi eta konpresen erabilpenari estuki lotutako kontua izan ohi da hori. Arazo hauek bi iturburu nagusi dituzte, Estevezek ustez. Batetik, tanpoiak eta konpresak zurrizko erabiltzen diren elementuek eragiten dituzten kalteak. Zurrizko horiek emakumeen gorputzean zabaltzen diren dioxinak eragiten omen dituzte. Beste arazoa, gasteiztarren aburuz, petroliotik eratorritako osagaien presentzia da. Osagai hauek baginan mikrofibra utziz gero, idortasuna eragin dezakete, izan ere, tanpoiek hilekoko fluxua xurgatzeaz gainera, baginan egon ohi den mukosa ere xurgatzen dute, eta hala, lehortasun sentsazioa eragiten dute.

Arrazoi bat zein bestea medio, gero eta gehiago dira kopa baginala erabiltzen duten emakumeak. Estevezek aitortu moduan, 30 urtetik gorako emakumeak dira erosle ohikoak. «Euren gorputza eta hilerokoaren inguruko jakintza dutenak», gehitu du.